

HAUXE DA HERRI BAZKARIA

Bada Irunen jai paregabea
Sanmartzialetan ospatzen deguna
Gazte elkarte batek antolatuta
Lagun-taldeen herri bazkaria

Goizean lehia da olinpiadetan
Asmatutako kirol-joko eroak
Ahaztu zaigu atzoko parranda
Festek ematen digute indarra

Hainbat koadrila San Juan inguruan
Eguedirako karririk gainezka
Denok jantzita geure kamisetak
Kattottero gaude jaia hasi nahian

Urrutitik dator soinu atsegina
Txarangak eragingo digu martxa
Ficoba bidean da kalejira
Utzi nekeak kale bazterrean

**San Martzial, San Martzial
jaien inguruan
San Martzial, San Martzial
bazkari herrikoia
Goazen ba, goazen ba
koadrila guztiak
Goazen ba, goazen ba
herri bazkarira**

Gure lekuan eseri ostean
Kolare zapia jarri lepoan
Puxika puztu hartu txotxa eskuan
Hamar zenbatu, entzun (e)zazu eztanda

Bazkaldu ondoren logura sartzen zait
Baina batukada erne dabil orain
Altza zaitetz festak oraindik darrai
Giro eder honek jartzen nau alai

**San Martzial, San Martzial
jaien inguruan
San Martzial, San Martzial
bazkari herrikoia
Hauxe da, hauxe da Irungo giroa
Hauxe da, hauxe da herri bazkaria**

Iluntzean kalejira da bueltan
Kale Nagusia berriz beteta
Behetik entzuten da goiko zurrunba
Hara zer datorren han!

**San Martzial, San Martzial
bazkari herrikoia
San Martzial, San Martzial
kalen goitik behera
Goazen ba, goazen ba jaiak jarrai dezan
Goazen ba, goazen ba betti gotti gora**

**San Martzial, San Martzial
jaien inguruan
San Martzial, San Martzial
bazkari herrikoia
Hauxe da, hauxe da Irungo giroa
Hauxe da, hauxe da herri bazkaria**